# DONOSTIAKO UDALA
# AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

**ARKITEKTO TEKNIKO PLAZA BAT (1) OPOSIZIO-LEHIAKETAREN BIDEZ BEHIN BETIKO BETETZEKO DEIALDIA**

**PROVISIÓN DEFINITIVA POR CONCURSO-OPOSICIÓN DE UNA (1) PLAZA DE ARQUITECTO/A TÉCNICO/A**

## Oposizio aldiko ariketa bakarra
## Ejercicio único de la fase de oposición

**KURSAAL (DONOSTIA)**

**2025eko apirilaren 4a / 4 de abril de 2025**

# GALDERAK / PREGUNTAS:

**1 Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren arabera, eraikuntza-proiektu orok dokumentu hauek izan behar ditu:**

A) Memoria, planoak, baldintzen agiria, neurketak eta aurrekontua.

B) Memoria, planoak eta aurrekontua.

C) Memoria, planoak, neurketak eta aurrekontua.

**1 Conforme al Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, por el que se aprueba el Código Técnico de la Edificación, todo proyecto de edificación contendrá los siguientes documentos:**

A) Memoria, planos, pliego de condiciones, mediciones y presupuesto.

B) Memoria, planos y presupuesto.

C) Memoria, planos, mediciones y presupuesto.

**2 Eraikingintzaren Kode Teknikoko OD-SS (Oinarrizko dokumentua - Segurtasuna suteetan) dokumentuan ezarritakoaren arabera, ebakuazio-ateek, ospitale-erabilerakoek izan ezik, neurri hau izango dute, gutxienez:**

A) 0,80 m.

B) 0,90 m.

C) 1,00 m.

**2 Según lo establecido en el Documento Básico DB SI Seguridad en caso de incendio del Código Técnico de la Edificación, el dimensionado de las puertas de evacuación, a excepción de las de uso hospitalario, será como mínimo de:**

A) 0,80 m.

B) 0,90 m.

C) 1,00 m.

**3 Eraikingintzaren Kode Teknikoko OD-SS (Oinarrizko dokumentua - Segurtasuna suteetan) dokumentuan, LD OD SS /4 "Eraikineko irteera eta kanpoko espazio segurua" atalean, "eraikineko irteera" terminoa honela definitzen da:**

A) Kanpoko espazio seguru batera irteteko atea edo baoa. Gehienez 300 pertsonarentzat aurreikusitako irteeren kasuan, eraikineko irteera gisa onar daiteke kanpoko espazio batekin komunikatzen den irteera, baldin eta espazio horrek bi ibilbide alternatibo baditu kanpoko bi espazio segurustart, eta horietako bat ez bada 30 m-tik gorakoa.

B) Kanpoko espazio seguru batera irteteko atea edo baoa. Gehienez 200 pertsonarentzat aurreikusitako irteeren kasuan, eraikineko irteera gisa onar daiteke kanpoko espazio batekin komunikatzen den irteera, baldin eta espazio horrek bi ibilbide alternatibo baditu kanpoko bi espazio segururaino, eta horietako bat ez bada 20 m-tik gorakoa.

C) Kanpoko espazio seguru batera irteteko atea edo baoa. Gehienez 500 pertsonarentzat aurreikusitako irteeren kasuan, eraikineko irteera gisa onar daiteke kanpoko espazio batekin komunikatzen den irteera, baldin eta espazio horrek bi ibilbide alternatibo baditu kanpoko bi espazio segururaino, eta horietako bat ez bada 50 m-tik gorakoa.

**3 De acuerdo con el Documento de Apoyo al Documento Básico DB SI Seguridad en caso de incendio del Código Técnico de la Edificación, DA DB SI /4 Salida de edificio y espacio exterior seguro, el término "salida de edificio" se define de la siguiente manera:**

A) Puerta o hueco de salida a un espacio exterior seguro. En el caso de salidas previstas para un máximo de 300 personas puede admitirse como salida de edificio aquélla que comunique con un espacio exterior que disponga de dos recorridos alternativos hasta dos espacios exteriores seguros, uno de los cuales no exceda de 30 m.

B) Puerta o hueco de salida a un espacio exterior seguro. En el caso de salidas previstas para un máximo de 200 personas puede admitirse como salida de edificio aquélla que comunique con un espacio exterior que disponga de dos recorridos alternativos hasta dos espacios exteriores seguros, uno de los cuales no exceda de 20 m.

C) Puerta o hueco de salida a un espacio exterior seguro. en el caso de salidas previstas para un máximo de 500 personas puede admitirse como salida de edificio aquélla que comunique con un espacio exterior que disponga de dos recorridos alternativos hasta dos espacios exteriores seguros, uno de los cuales no exceda de 50 m.

**4 Eraikingintzaren Kode Teknikoko OD-HE (Oinarrizko dokumentua - Energia aurreztea) dokumentuaren arabera, ia energiarik kontsumitzen ez duten eraikinak honela definitzen dira:**

A) Eraikin berria edo lehendik dagoena, OD-HE (Oinarrizko dokumentua - Energia aurreztea) dokumentuan eraikin berrien energia-kontsumoa mugatzeari dagokionez ezarritako arauzko eskakizunak betetzen dituena.

B) Eraikin berria edo lehendik dagoena, OD-HE (Oinarrizko dokumentua - Energia aurreztea) dokumentuan lehendik dauden eta eraikin berrien energia-kontsumoa mugatzeari dagokionez ezarritako arauzko eskakizunak betetzen dituena.

C) Eraikin berria, OD-HE (Oinarrizko dokumentua - Energia aurreztea) dokumentuan eraikin berrien energia-kontsumoa mugatzeari dagokionez ezarritako arauzko eskakizunak betetzen dituena.

**4 Según el Documento Básico DB HE Ahorro de energía del Código Técnico de la Edificación, el edificio de consumo de energía casi nulo se define como:**

A) Aquel edificio, nuevo o existente, que cumple con las exigencias reglamentarias establecidas en este Documento Básico “DB HE Ahorro de Energía” en lo referente a la limitación de consumo energético para edificios de nueva construcción.

B) Aquel edificio, nuevo o existente, que cumple con las exigencias reglamentarias establecidas en este Documento Básico “DB HE Ahorro de Energía” en lo referente a la limitación de consumo energético para edificios existentes y de nueva construcción.

C) Aquel edificio, nuevo, que cumple con las exigencias reglamentarias establecidas en este Documento Básico “DB HE Ahorro de Energía” en lo referente a la limitación de consumo energético para edificios de nueva construcción.

**5 Eraikingintzaren Kode Teknikoko OD-HR (Oinarrizko dokumentua - Zarataren aurkako babesa) dokumentuaren arabera, ikasgela edo hitzaldi-areto bat, jangela eta jatetxe bat mugatzen dituzten eraikuntza-elementuek, gainazaleko akaberek eta estaldurek soinu-absortzio hau izango dute:**

A) Ikasgeletan eta hitzaldi-areto hutsetan, besaulki guztiak jarrita daudela, betiere horien bolumena 350 $m^3$-tik beherakoa bada, erreberberazio-denbora ez da izango 0,9 s-tik gorakoa.

B) Ikasgeletan eta hitzaldi-areto hutsetan, besaulki guztiak jarrita daudela, betiere horien bolumena 350 $m^3$-tik beherakoa bada, erreberberazio-denbora ez da izango 0,7 s-tik gorakoa.

C) Ikasgeletan eta hitzaldi-areto hutsetan, besaulki guztiak jarrita daudela, betiere horien bolumena 350 $m^3$-tik beherakoa bada, erreberberazio-denbora ez da izango 0,5 s-tik gorakoa.

**5 Según el Documento Básico DB HR Protección frente a ruido del Código Técnico de la Edificación, en conjunto, los elementos constructivos, acabados superficiales y revestimientos que delimitan un aula o una sala de conferencias, un comedor y un restaurante, tendrán la absorción acústica de tal manera que:**

A) El tiempo de reverberación en aulas y en salas de conferencias vacías, pero incluyendo el total de las butacas, cuyo volumen sea menor que 350$m^3$, no será mayor que 0,9 s.

B) El tiempo de reverberación en aulas y en salas de conferencias vacías, pero incluyendo el total de las butacas, cuyo volumen sea menor que 350$m^3$, no será mayor que 0,7 s.

C) El tiempo de reverberación en aulas y en salas de conferencias vacías, pero incluyendo el total de las butacas, cuyo volumen sea menor que 350$m^3$, no será mayor que 0,5 s.

**6** **Eraikingintzaren Kode Teknikoko OD-HS (Oinarrizko dokumentua - Osasungarritasuna) dokumentuko HS 1 "Hezetasunetik babestea" atalaren arabera, horma kanpotik iragazgaizten denean, haren gaineko fatxaden abioetan, zenbat gehiago luzatu behar da iragazgaiztekoa kanpoko lurzoruaren mailaren gainetik?**

A) 10 cm baino gehiago.

B) 15 cm baino gehiago.

C) 20 cm baino gehiago.

**6** **De acuerdo con el Documento Básico DB HS Salubridad, Sección HS 1 protección frente a la humedad del Código Técnico de la Edificación, cuando el muro se impermeabilice por el exterior, en los arranques de las fachadas sobre el mismo, el impermeabilizante debe prolongarse por encima del nivel del suelo exterior:**

A) Más de 10 cm.

B) Más de 15 cm.

C) Más de 20 cm.

**7** **Eraikingintzaren Kode Teknikoko OD-HS (Oinarrizko Dokumentua - Osasungarritasuna) dokumentuaren arabera, HS 3 "Barneko airearen kalitatea" atala honako hauei aplikatzen zaie:**

A) Etxebizitza-eraikinetan, horien barruko aldeari, hondakin-biltegiei, aparkalekuei eta garajeei; eta beste edozein erabileratako eraikinetan, aparkalekuei eta garajeei.

B) Etxebizitza-eraikinetan, horien barruko aldeari, hondakin-biltegiei, trastelekuei, aparkalekuei eta garajeei; eta beste edozein erabileratako eraikinetan, aparkalekuei eta garajeei.

C) Etxebizitza-eraikinetan, horien barruko aldeari, hondakin-biltegiei, trastelekuei eta garajeei; eta beste edozein erabileratako eraikinetan, aparkalekuei eta garajeei.

**7** **Conforme al Documento Básico DB HS Salubridad del Código Técnico de la Edificación, el ámbito de aplicación de la Sección HS 3 Calidad del aire interior, se aplica en:**

A) Los edificios de viviendas, al interior de las mismas, los almacenes de residuos, los aparcamientos y garajes; y en los edificios de cualquier otro uso, a los aparcamientos y los garajes.

B) Los edificios de viviendas, al interior de las mismas, los almacenes de residuos, los trasteros, los aparcamientos y garajes; y en los edificios de cualquier otro uso, a los aparcamientos y los garajes.

C) Los edificios de viviendas, al interior de las mismas, los almacenes de residuos, los trasteros y garajes; y en los edificios de cualquier otro uso, a los aparcamientos y los garajes.

**8 Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak jasotzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, nork egiten du laneko segurtasun- eta osasun-plana, azterlanean edo oinarrizko azterlanean jasotako aurreikuspenak analizatu, aztertu, garatu eta osatzen dituena, obra egikaritzeko bere sistemaren arabera?**

A) Sustatzaileak.

B) Kontratistak.

C) Segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaileak.

**8 Según el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, donde se recogen las condiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, ¿quién elabora el plan de seguridad y salud en el trabajo en el que se analizan, estudian, desarrollan y complementan las previsiones contenidas en el estudio o estudio básico, en función de su propio sistema de ejecución de la obra?**

A) El promotor.

B) El contratista.

C) El coordinador en materia de seguridad y salud.

**9 Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuaren arabera, haurtzaindegietan, barneko airearen kalitateak kategoria hau izan behar du, gutxienez:**

A) Kalitate oneko airea.

B) Kalitate ezin hobeko airea.

C) Kalitate gutxiko airea.

**9 En virtud del Real Decreto 1027/2007, de 20 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Instalaciones Térmicas en los Edificios, la categoría de calidad del aire interior que se deberá alcanzar como mínimo en guarderías será:**

A) Aire de buena calidad.

B) Aire de óptima calidad.

C) Aire de calidad baja.

**10 Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuaren 15. artikuluaren arabera, EITEaren aplikazio-eremuan sartutako instalazio termikoak memoria tekniko baten bidez egikarituko dira, kasu honetan:**

A) Beroa edo hotza sortzeko instalatu beharreko potentzia termiko izendatua 5 kW-tik gorakoa denean.

B) Beroa sortzeko instalatu beharreko potentzia termiko izendatua 5 kW-tik beherakoa denean.

C) Beroa edo hotza sortzeko instalatu beharreko potentzia termiko izendatua 5 kW edo hortik gorakoa eta 70 kW edo hortik beherakoa denean.

**11 Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuaren 6. artikuluan jasotakoaren arabera, obrak hasi aurretik, obren kalitate-kontrola eraginkortasunez koordinatzeko:**

A) Sustatzaileak egikaritze-proiektuaren ale oso bat helaraziko dio zuzendaritza fakultatiboari. Ale hori obran gordeko da, eta etengabe eguneratuko da, obran zehar gerta litezkeen aldaketak txertatuz.

B) Eraikitzaileak egikaritze-proiektuaren ale oso bat helaraziko dio zuzendaritza fakultatiboari. Ale hori obran gordeko da, eta etengabe eguneratuko da, obran zehar gerta litezkeen aldaketak txertatuz.

C) Sustatzaileak egikaritze-proiektuaren ale oso bat helaraziko dio eraikitzaileari. Ale hori obran gordeko da, eta etengabe eguneratuko da obran, obran zehar gerta litezkeen aldaketak txertatuz.

**10 Conforme al Real Decreto 1027/2007 de 20 de julio por el que se aprueba el Reglamento de Instalaciones Térmicas en los Edificios, según el artículo 15, las instalaciones térmicas incluidas en el ámbito de aplicación del RITE se ejecutarán mediante una memoria técnica cuando:**

A) La potencia térmica nominal a instalar en generación de calor o frío sea mayor que 5 kW.

B) La potencia térmica nominal a instalar en generación de calor sea menor que 5 kW.

C) La potencia térmica nominal a instalar en generación de calor o frío sea mayor o igual que 5 kW y menor o igual que 70kW.

**11 Tal como recoge en el artículo 6 del Decreto 209/2014 de 28 de octubre, por el que se regula el Control de Calidad en la Construcción, previo al inicio de las obras y con el fin de coordinar de manera eficaz el Control de Calidad de las obras:**

A) El promotor o promotora aportará a la Dirección Facultativa un ejemplar completo del Proyecto de Ejecución, que quedará depositado en obra, actualizándose continuamente con las modificaciones que se pudieran introducir durante la misma.

B) El constructor aportará a la Dirección Facultativa un ejemplar completo del Proyecto de Ejecución, que quedará depositado en obra, actualizándose continuamente con las modificaciones que se pudieran introducir durante la misma.

C) El promotor o promotora aportará al constructor un ejemplar completo del Proyecto de Ejecución, que quedará depositado en obra, actualizándose continuamente con las modificaciones que se pudieran introducir durante la misma.

**12 Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 4. artikuluaren arabera, hirigintza-lizentziarik behar ez duten obren kasuan eta hondakinaren ekoizlea administrazio publikoa denean, hondakinen kudeaketari buruzko azterketa egin beharko da, honako honek ikuskatua:**

A) Administrazio publikoak berak.

B) Dagokion bulego teknikoak.

C) EZ da behar hondakinen kudeaketari buruzko azterketarik.

**12 Según el artículo 4 del Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la Producción y Gestión de Residuos de Construcción y Demolición, en el caso de obras que no requieren de licencia urbanística y si la persona productora del residuo es la Administración Pública se deberá realizar un estudio de gestión de residuos supervisado por:**

A) La propia Administración Pública.

B) La Oficina Técnica correspondiente.

C) NO hará falta el estudio de gestión de residuos.

**13 Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 8. artikuluaren arabera, obra handien kasuan, eraikuntza- eta eraispen-hondakinak frakzio hauetan bereizi beharko dira:**

A) Hormigoia, adreiluak, teilak eta zeramikazko materialak, metala, zura, beira, plastikoa, papera eta kartoia, sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak.

B) Adreiluak, metala, zura, beira, plastikoa, papera eta kartoia, sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak.

C) Hormigoia, metala, zura, adreiluak, plastikoa, papera eta kartoia.

**13 Conforme al artículo 8 del Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la Producción y Gestión de Residuos de Construcción y Demolición, en el caso de obra mayor la segregación de residuos de construcción y demolición se deberá separar en las siguientes fracciones:**

A) Hormigón, ladrillos, tejas y materiales cerámicos, metal, madera, vidrio, plástico, papel y cartón, yeso de falsos techos, molduras y paneles.

B) Ladrillos, metal, madera, vidrio, plástico, papel y cartón, yeso de falsos techos, molduras y paneles.

C) Hormigón, metal, madera, ladrillos, plástico, papel y cartón.

**14 Donostiako bide publikoan egiturak, aldamioak eta bestelako obra-baliabide lagungarriak instalatzeko araudiaren arabera, aldamioak bermatzeko habe etzanen materiala honako hau izango da:**

A) Metalikoa, gutxienez 5 cm-ko lodierakoa.

B) Egur trinkozkoa, gutxienez 5 cm-ko lodierakoa, edo antzeko erresistentzia duen geruza askotako gai batez egina.

C) Zurezko aglomeratua, gutxienez 5 cm-ko lodiera duena.

**14 En virtud de la Normativa para la instalación de estructuras, andamiadas y otros tipos de medios auxiliares de obra en la vía pública de Donostia-San Sebastián, el material de los durmientes de apoyo de los andamios será el siguiente:**

A) Metálico de 5 cms. de grosor mínimo.

B) Madera maciza de 5 cms. de grosor mínimo o multicapa de resistencia similar.

C) Aglomerado de madera de 5 cms. de grosor mínimo.

**15 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren arabera, honako hau izan beharko dute:**

A) Erabilera anitzeko espazio bat, 30 m² baino gutxiagoko azalera duena.

B) Erabilera anitzeko espazio bat, gutxienez 30 m²-ko azalera duena.

C) Erabilera anitzeko bi espazio, gutxienez 30 m²-ko azalera dutenak.

**15 De acuerdo con el Decreto 215/2004 de 16 de noviembre, por el que se establecen los requisitos mínimos de las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años, deberán de tener:**

A) Un espacio para usos múltiples, con una superficie inferior a 30m².

B) Un espacio para usos múltiples, con una superficie no inferior a 30m².

C) Dos espacios para usos múltiples, con una superficie no inferior a 30m².

**16 Eraikingintzaren Kode Teknikoko OD-ESS (Oinarrizko dokumentua - Erabileraren segurtasuna eta irisgarritasuna) dokumentuko laguntza-dokumentuan (LD-OD-ESS/2 "Lehendik dauden eraikinen irisgarritasun-baldintzen egokitzapen eraginkorra"), honako hau adierazten da: "Dokumentu honen xedea da malgutasun-irizpideak ematea, eraikinak eta establezimenduak irisgarri egiteko eta desgaitasuna duten pertsonak ez diskriminatzeko oinarrizko baldintzetara egokitzeko. (...)". Zein dira lehendik dauden eraikinak edo establezimenduak?**

A) Obra-lizentzia 2010eko irailaren 12a baino lehenago eskatu zutenak.

B) Obra-lizentzia 2018ko martxoaren 17a baino lehenago eskatu zutenak.

C) Lizentziarekin eraikita daudenak.

**16 En el Documento de Apoyo al Documento Básico DB-SUA Seguridad de utilización y accesibilidad del Código Técnico de la Edificación, DA DB-SUA/2 Adecuación efectiva de las condiciones de accesibilidad en edificios existentes, se indica que : "El objeto de este documento es proporcionar criterios de flexibilidad para la adecuación efectiva de los edificios y establecimientos existentes a las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad. (...)". ¿Qué edificios o establecimientos se consideran existentes?**

A) Aquellos cuya solicitud de licencia de obras fue anterior al 12 de septiembre de 2010.

B) Aquellos cuya solicitud de licencia de obras fue anterior al 17 de marzo de 2018.

C) Aquellos que están construidos con licencia.

**17 Suteetatik babesteko instalazioen erregelamendua onartzen duen maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretuaren arabera, erregelamendu horren xedapenei lotuta egongo dira honako hauek:**

A) Enpresa instalatzaileak.

B) Eraikuntza-enpresak, suteetatik babesteko instalazioak mantentzen dituzten enpresak eta kontrol-erakunde akreditatuak.

C) Suteetatik babesteko instalazioak instalatzen eta mantentzen dituzten enpresak.

**17 Conforme al Real Decreto 513/2017, de 22 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de Instalaciones de protección contra incendios, estarán sujetos a las disposiciones de este Reglamento:**

A) Las empresas instaladoras.

B) Las empresas constructoras, las empresas mantenedoras de instalaciones de protección contra incendios y los organismos de control acreditados.

C) Las empresas instaladoras y las empresas mantenedoras de instalaciones de protección contra incendios.

**18** **Donostiako Udalaren Eraikuntzako Ordenantza Osagarrien arabera (2021eko uztailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren), behe-solairuko 60 m²-ko lokal batean jarritako goialde batek zer azalera erabilgarri izan dezake, gehienez ere?**

A) 30 m².

B) 60 m².

C) 20 m².

**19** **Donostiako Udalaren Eraikuntzako Ordenantza Osagarrien arabera (2021eko uztailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren), lokal batean, erabilera publikoko jarduera nagusi bat garatzen den 30 m²-ko espazio baten garaiera librea honako hau izango da, gutxienez:**

A) 2,50 m.

B) 2,80 m.

C) 2,10 m.

**20** **Donostiako Udalaren Eraikuntzako Ordenantza Osagarrien arabera (2021eko uztailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren), lokal baten gutxieneko azalera ezingo da izan hau baino txikiagoa:**

A) 18 m² ostalaritzako lokaletan.

B) 35 m².

C) 25 m².

**18** **De acuerdo con las Ordenanzas Complementarias de Edificación del Ayuntamiento de San Sebastián, publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 13 de julio de 2021, la superficie útil máxima que puede tener un altillo dispuesto en un local de 60m² de planta baja es de:**

A) 30m².

B) 60m².

C) 20m².

**19** **Según las Ordenanzas Complementarias de Edificación del Ayuntamiento de San Sebastián, publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 13 de julio de 2021, en un local, la altura libre mínima de un espacio de 30m² en el que se desarrolla una actividad principal de uso público, será de:**

A) 2,50 m.

B) 2,80 m.

C) 2,10 m.

**20** **Conforme a las Ordenanzas Complementarias de Edificación del Ayuntamiento de San Sebastián, publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 13 de julio de 2021, la superficie mínima de un local no podrá ser inferior a:**

A) 18 m² en locales de hostelería.

B) 35 m².

C) 25 m².

**21 2021eko martxoaren 25ean onartutako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren arabera, hirigintza-ondare eraikiaren katalogoan sartutako elementuak honela osatuta daude:**

A) Sei gradu (A gradua, B gradua, C gradua, D gradua, E gradua eta F gradua).

B) Lau gradu (A gradua, B gradua, C gradua, D gradua).

C) Lau gradu (I. gradua, II. gradua, III. gradua eta IV. gradua).

**21 De acuerdo con el Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido, aprobado el 25 de marzo de 2021, los elementos incluidos en el catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido se integran por:**

A) Seis grados (Grado A, Grado B, Grado C, Grado D, Grado E, y Grado F).

B) Cuatro grados (Grado A, Grado B, Grado C, Grado D).

C) Cuatro grados (Grado I, Grado II, Grado III y Grado IV).

**22 2021eko martxoaren 25ean onartutako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren arabera, eraikin katalogatuen beheko solairuan toldoak ezartzeko baimena ematen da, baldintza hauekin:**

A) Soil-soilik, den bao bakoitzaren barruan.

B) Salbuespenez, baimentzen da, behin-behinean edo aldi baterako, dagokion baoaren zabalera baino zabalera handiagoko toldoak ezartzea, erabilera publikoko zordunketa duten espazio publiko eta/edo pribatuaren okupazioak berariaz baimenduta dituzten establezimenduetan.

C) Soil-soilik, den bao bakoitzaren barruan, eta salbuespenez, baimentzen da, behin-behinean edo aldi baterako, dagokion baoaren zabalera baino zabalera handiagoko toldoak ezartzea, erabilera publikoko zordunketa duten espazio publiko eta/edo pribatuaren okupazioak berariaz baimenduta dituzten establezimenduetan.

**22 Conforme al Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido, aprobado el 25 de marzo de 2021, en la planta baja de los edificios catalogados, se autoriza la implantación de toldos con las siguientes condiciones:**

A) Exclusivamente, dentro de cada uno de los huecos existentes.

B) Excepcionalmente, se autorizan, de modo provisional o temporal, la implantación de toldos de anchura superior a la del correspondiente hueco, en establecimientos en los que se haya autorizado expresamente ocupaciones de espacio público y/o privado con servidumbre de uso público.

C) Exclusivamente, dentro de cada uno de los huecos existentes y a modo excepcional, se autorizan, de modo provisional o temporal, la implantación de toldos de anchura superior a la del correspondiente hueco, en establecimientos en los que se haya autorizado expresamente ocupaciones de espacio público y/o privado con servidumbre de uso público.

**23 2021eko martxoaren 25ean onartutako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren arabera, baimenduta al dago katalogatutako elementuen zati babestuan publizitate- edo seinaleztapen-elementuak (errotuluak, banderatxoak eta abar) ezartzea?**

A) Ez, ez da baimenduko inolako publizitate- edo seinaleztapen-elementurik jartzea zuzenean katalogatutako elementuen zati babestuen gainean edo haien pertzepzioari eta ulermenari eragiteko moduan.

B) Bai, baimentzen dira, betiere katalogatutako elementuaren pertzepzioari eta ulermenari eragiten ez badiote.

C) Bai, beti baimentzen dira.

**23 Según el Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido, aprobado el 25 de marzo de 2021 ¿Está autorizada la implantación de elementos de publicidad o señalización (rótulos, banderolas, etc.) sobre la parte protegida de los elementos catalogados?**

A) No, no se autorizarán elementos de publicidad o señalización de ningún tipo directamente sobre las partes protegidas de los elementos catalogados o afectando a su percepción y comprensión.

B) Si, si se autorizan siempre que no afecte a la percepción y comprensión del elemento catalogado.

C) Si, se autorizan siempre.

**24 Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean ezarritakoaren arabera, plaza batzuk mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuentzat soilik gordeko dira. Gorde beharreko plazen kopurua hauxe izango da:**

A) Plaza bat 40 edo frakzio bakoitzeko.

B) Plaza bat 10 edo frakzio bakoitzeko.

C) Plaza bat 50 edo frakzio bakoitzeko.

**24 Conforme a lo establecido en la Ley 20/1997 de 4 de diciembre de promoción de la accesibilidad, se reservarán plazas destinadas al uso exclusivo de vehículos de personas con movilidad reducida. El número de plazas reservadas será de:**

A) 1 por cada 40 o fracción.

B) 1 por cada 10 o fracción.

C) 1 por cada 50 o fracción.

**25 Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III. eranskinean (Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak) ezarritakoaren arabera, korridore nagusietan zein da gutxieneko igarotze-zabalera librea?**

A) 1,20 m.

B) 1,80 m.

C) 1,50 m.

**25 De acuerdo con lo establecido en el Anejo III, Condiciones Técnicas sobre accesibilidad en los edificios, del Decreto 68/2000 de 11 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se aprueban las Normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos,edificaciones y sistemas de información y comunicación, ¿Cual es la anchura mínima libre de paso en pasillos principales?**

A) 1,20m.

B) 1,80m.

C) 1,50m.

**26 Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III. eranskinean (Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak) ezarritakoaren arabera, igogailu irisgarri baten kabinak, oztoporik gabe, ateak zabaltzeko beharrezkoa den espazioa kenduta, neurri hauek izango ditu barrualdean:**

A) Gutxieneko sakonera 1,50 m eta gutxieneko zabalera 1,50 m.

B) Gutxieneko sakonera 1,40 m eta gutxieneko zabalera 1,10 m.

C) Gutxieneko sakonera 1,20 m eta gutxieneko zabalera 0,90 m.

**26 De acuerdo con lo establecido en el Anejo III, Condiciones Técnicas sobre accesibilidad en los edificios, del Decreto 68/2000 de 11 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se aprueban las Normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, las dimensiones interiores de la cabina de un ascensor accesible, libres de todo obstáculo, excluido el espacio necesario para la apertura de puertas, es de:**

A) Profundidad mínima 1,50 m y anchura mínima 1,50 m.

B) Profundidad mínima 1,40 m y anchura mínima 1,10 m.

C) Profundidad mínima 1,20 m y anchura mínima 0,90 m.

**27** **Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritakoaren arabera, jarduera eta instalazio publiko eta pribatuek ingurumenean esku hartzeko erregimen hauek bete behar dituzte:**

A) Ingurumen-baimen integratuaren erregimen juridikoa, jarduera sailkatuaren lizentziaren erregimen juridikoa eta jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenaren erregimen juridikoa.

B) Ingurumen-baimen integratuaren erregimen juridikoa, ingurumen-baimen bakarraren erregimen juridikoa, jarduera sailkatuaren lizentziaren erregimen juridikoa eta jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenaren erregimen juridikoa.

C) Jarduera sailkatuaren lizentziaren erregimen juridikoa eta jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenaren erregimen juridikoa.

**27** **Según lo establecido en la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, los regímenes de intervención ambiental a los que quedan sometidas las actividades e instalaciones públicas y privadas son los siguientes:**

A) Régimen jurídico de autorización ambiental integrada, régimen jurídico de licencia de actividad clasificada, y Régimen jurídico de comunicación previa de actividad clasificada.

B) Régimen jurídico de autorización ambiental integrada, Régimen jurídico de autorización ambiental única, Régimen jurídico de licencia de actividad clasificada y Régimen jurídico de comunicación previa de actividad clasificada.

C) Régimen jurídico de licencia de actividad clasificada y Régimen jurídico de comunicación previa de actividad clasificada.

**28** **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora), publizitate-betekizunak edo dagokion adjudikazio-prozeduraren betekizunak saihesteko, zatikatu daitezke kontratuak, horien zenbatekoa murrizteko?**

A) Ez.

B) Bai, betiere dagokion adjudikazio-prozedura mantentzen bada.

C) Bai.

**28** **En virtud de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014), para evitar los requisitos de publicidad o los relativos al procedimiento de adjudicación que correspondan ¿Los contratos podrán fraccionarse con la finalidad de disminuir la cuantía del mismo?:**

A) No.

B) Si, siempre que se mantenga el procedimiento de adjudicación correspondiente.

C) Si.

**29** **Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, hauek dira eraikuntzako eragileak:**

A) Sustatzailea, proiektugilea, eraikitzailea, obra-zuzendaria, obra egikaritzeko zuzendaria, eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakunde eta laborategiak, produktuen hornitzaileak, jabeak eta erabiltzaileak.

B) Sustatzailea, proiektugilea, eraikitzailea, obra-zuzendaria eta obra egikaritzeko zuzendaria.

C) Proiektugilea eta eraikitzailea.

**29** **Conforme a la Ley 38/1999, de 5 de noviembre, de Ordenación de la Edificación, son agentes de la edificación:**

A) El promotor, el proyectista, el constructor, el director de obra, el director de la ejecución de la obra, las entidades y los laboratorios de control de calidad de la edificación, los suministradores de productos, los propietarios y los usuarios.

B) El promotor, el proyectista, el constructor, el director de obra y el director de la ejecución de la obra.

C) El proyectista y el constructor.

**30** **Euskal Autonomia Erkidegoan jantoki kolektiboen eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten establezimendu ez-industrialen osasun-baldintzak eta sailkapena ezartzen dituen Osasuneko sailburuaren 2002ko martxoaren 15eko AGINDUArekin bat, "biltegi edo jakitokitarako lokala" izango dute:**

A) Establezimendu guztiek.

B) Establezimendu publikoak.

C) I., II. eta III. taldeetako establezimenduak.

**30** **En virtud de la ORDEN de 15 de marzo de 2002, del Consejero de Sanidad, por la que se establecen las condiciones sanitarias y la clasificación de los comedores colectivos y de los establecimientos no industriales de elaboración de comidas preparadas para el consumidor final en la Comunidad Autónoma del País Vasco, es requisito disponer de “local de almacén o despensa” en:**

A) Todos los establecimientos.

B) Los establecimientos de carácter público.

C) Los establecimientos pertenecientes a los Grupos I, II y III.

# ERRESERBAKO GALDERAK / PREGUNTAS DE RESERVA:

**31 Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskinean (Hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoak) ezarritakoaren arabera, urbanizazioetan kokatutako arrapalek zer zabalera izango dute, gutxienez?**

A) 1,50 m.

B) 1,80 m.

C) 2,00 m.

**31 Según lo establecido en el Anejo II, Condiciones Técnicas sobre accesibilidad en el entorno urbano, del Decreto 68/2000 de 11 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se aprueban las Normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos,edificaciones y sistemas de información y comunicación, la anchura mínima de una rampa ubicada en una urbanización será de:**

A) 1,50 m.

B) 1,80 m.

C) 2,00 m.

**32 Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskinean (Hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoak) ezarritakoaren arabera, komun publikoak banatzeko espazioetan oztoporik gabeko zirkulu bat egin ahal izango da, neurri honetakoa:**

A) 1,80 m-ko diametroa.

B) 1,50 m-ko diametroa.

C) 1,20 m-ko diametroa.

**32 Conforme a lo establecido en el Anejo II, Condiciones Técnicas sobre accesibilidad en el entorno urbano, del Decreto 68/2000 de 11 de abril, del Gobierno Vasco, de 11 de abril, por el que se aprueban las Normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación, en los espacios destinados a la distribución de los aseos públicos se podrá inscribir un círculo libre de obstáculos de:**

A) 1,80m de diámetro.

B) 1,50m de diámetro.

C) 1,20m de diámetro.

**33 Donostiako Udalaren Eraikuntzako Ordenantza Osagarrien arabera (2021eko uztailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren), beheko solairua trastelekutarako duen oin berriko lokal baten gehieneko azalera honako hau izango da:**

A) 13,50 m² (u).

B) 3,50 m².

C) Ez dago ordenantza hauetan araututa.

**33 En virtud de las Ordenanzas Complementarias de Edificación del Ayuntamiento de San Sebastián, publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 13 de julio de 2021, la superficie máxima de un local de nueva planta destinada a trastero será de:**

A) 13,50 m² (u).

B) 3,50m².

C) No está regulado en estas ordenanzas.

**34 Eraikingintzaren Kode Teknikoko OD-HE (Oinarrizko dokumentua - Energia aurreztea) dokumentuan ezarritakoaren arabera, eraikin berrietan:**

A) Nahikoa izango da energia-eskaera mugatua izatea.

B) Nahikoa izango da energia-kontsumoa mugatua izatea.

C) Mugatuta edukiko dituzte beren kontsumoa eta energia-eskaria.

**34 De acuerdo con lo establecido en el Documento Básico DB HE Ahorro de energía del Código Técnico de la Edificación, los edificios de nueva construcción:**

A) Bastará con que tengan limitada su demanda energética.

B) Bastará con que tengan limitada su consumo energético.

C) Tendrán limitado su consumo y su demanda energética.

**35 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren arabera, eskola-eraikin edo -esparru berean Lehen edo Bigarren Hezkuntza ematen bada, eta, gainera, 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza eta asistentzia ere ematen bada, instalazio komuntzat hartuko dira honako hauek:**

A) Zuzendaritza-idazkaritzaren bulegoa eta jolastokia, betiere patioa ordutegi independentean erabiltzea bermatzen bada.

B) Officea eta jolastokia, eta ordutegiak gainerako hezkuntza-mailekin partekatuko dira.

C) Hezitzaileen komunak eta jolastokia, betiere patioa ordutegi independentean erabiltzea bermatzen bada.

**35 Conforme al Decreto 215/2004 de 16 de noviembre, por el que se establecen los requisitos mínimos de las Escuelas Infantiles para niños y niñas de 0 a 3 años, en el caso de que en un mismo edificio o recinto escolar se impartan Educación Primaria o Secundaria, y además se atienda el tramo educativo y asistencial de 0 a 3 años, se considerarán instalaciones comunes:**

A) El despacho de Dirección-Secretaría y el patio de juegos, siempre que se garantice el uso de dicho patio en horario independiente.

B) El office y el patio de juegos, compartiendo los horarios con el resto de niveles educativos.

C) Los aseos de los educadores y el patio de juegos, siempre que se garantice el uso de dicho patio en horario independiente.

**36 Donostiako bide publikoan egiturak, aldamioak eta bestelako obra-bitarteko lagungarriak jartzeko araudiaren arabera, espaloian edukiontzi bat jartzen dugunean, leku libre bat geratuko da oinezkoentzat, neurri honetakoa:**

A) 2,50 metro, edukiontziaren beheko ertza erreferentziatzat hartuta.

B) 2,50 metro, edukiontziaren goiko ertza erreferentziatzat hartuta.

C) 2,25 metro, edukiontziaren goiko ertza erreferentziatzat hartuta.

**36 Conforme a la Normativa para la instalación de estructuras, andamiadas y otros tipos de medios auxiliares de obra en la vía pública de Donostia-San Sebastián, cuando por necesidades coloquemos un contenedor en la acera, quedará un espacio libre para los peatones de:**

A) 2,50 metros, tomando como referencia del contenedor su borde inferior.

B) 2,50 metros, tomando como referencia del contenedor su borde superior.

C) 2,25 metros, tomando como referencia del contenedor su borde superior.